

KARKARA



UKRAINAKO GERRA

ELKARTASUN TAUPADAK

ANORGA TXIKI, S.L.
KRISTALDEGIA

Oria etorbidea, 4
 LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com
 www.cristaleriaanorgatxiki.com
 943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak

Pelotari, 5 · ORIO
 943-83 00 34
 autolan13@hotmail.com

AUTO - LAN C. B.



ARDORA
 arraindegia

Eusko Gudari, 4
 © 943-09 28 17 · 623 47 57 52
 ardoraaraindegia@yahoo.com
 ORIO



arkaitz taberna
 orio

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Terraza ederrarekin giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943-83 16 57

azkue
 karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7
 AIA-ORIO
 943-83 51 86



auto azkue

Olaskoegia z/g
 AIA-ORIO
 943-13 04 38

Carmen eta Txomin
 ARRAINDEGIA

TXOMIN ARRAINDEGIA
 Eusko Gudarien kalea, 44
 943-83 27 47

CARMEN ARRAINDEGIA
 Arizaga kalea
 943-83 05 37



fontana
 iturgintza

iturgintza · gasa · berogailuak

Zerbitzu teknikoak
 24 ordu

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoaren instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Arrantza kalea, 3 · ORIO
 fontana-jul@hotmail.es
 www.fontaneria-fontana.com
 943-53 98 88 · 661 26 28 28



IGLESIAS
 SARRAILAGILEAK

iglesiascerrajereros@yahoo.es
 www.iglesiascerrajereros.com
 Erribera kalea, 14 · ORIO
 637 72 33 08

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

24orduko zerbitzua



Joseba
 AROZTEGIA · CARPINTERIA

687 683 427
 josebaarotza@gmail.com

ATEAK
 ZOKALOAK
 ARMAIRUAK NEURRIRA
 LEIHOAK
 ESKAILERAK
 AROZTEGIA OROKORREAN





KARKARA 439

2022-MAIATZA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- | | | | |
|----|---|----|---|
| 5 | Iritzia Onintza Lete Arrieta
<i>Galdetu zain</i> | 26 | Oroimenaren kutxa Iñaki Iturain
<i>XIII. mendeko Orioko balea</i> |
| 6 | Hitz tantak Iñigo Gaiton
<i>Iñigo Arina</i> | 30 | Erreportajea Aritz Pardina
<i>Euskara, ikasgelatik herrira</i> |
| 8 | Izpiak eta hizkiak Iñigo Gaiton
<i>Telefono hautsia</i> | 35 | Moila bazterretik Garbiñe Manterola
<i>Aterki umezurtzak</i> |
| 10 | Gutunak | 36 | Erreportajea Aritz Pardina
<i>Oroimena eta festa, ikastolan</i> |
| 13 | Herrian galdezka
<i>Zer plan duzu Bailearen Egunerako?</i> | 41 | Osasuna Yolanda Urrezi
<i>Zoriontsu izateko gako batzuk</i> |
| 14 | Erreportajea Onintza Lete Arrieta
<i>Belaunaldiz belaunaldi elkar zainduz</i> | 42 | Plazan bazan |
| 22 | Akuilua hartuta Xabier Ibaguren
<i>Talaiaetik</i> | 44 | Zerbitzuak |
| 23 | Nire honetan Rikardo Uzkudun | 45 | Agenda |
| 25 | Ikasleak idazle Zaragueta Herri Eskola | 46 | Hasi bertsotan Haitz Arregi |

KARKARA



TOKIKOM

Argitaratzailea
Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-83 15 27
karkara@karkara.eus
www.karkara.eus

Erredaktoreburua
Aitziber Arzallus
Erredaktore taldea
Onintza Lete Arrieta
Iñigo Gaiton
Diseinu arduraduna
Ane Azkue
Publizitatea
Leire Martija

Zenbaki honetako kolaboratzaileak
Iñaki Iturain
Aritz Pardina
Xabier Ibaguren
Rikardo Uzkudun
Garbiñe Manterola
Yolanda Urrezi
Zorione Mendez

Banatzzaileak
Endika Ruiz (Orio)
Manex Dorronsoro (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-346/90
ISSN: 1132-1105
Tirada: 4.000 ale




Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



**AIKO
UDALA**



KAIOA

 **kaioa_denda**
 **www.kaioa.es**

Gabon

TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09



%100 etxean egina
PIZZERIA
KALETA

Arrantza kalea, 10 943-24 89 46



GARMENDIA
Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 · 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 · ORIO
info@egarmendia.com



KATU HORIA

albaritaritza klinika

ESTROPALARZ, 10
20510 ORIO
tel. 943 11 66 99

LARRIALDIK
668891129

ITZIAR KIROLAK

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03



KORTABERRI
arotz lanak

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47



Kolon Txiki
edaritegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel.: 943-83 00 44

libe

dietetika
elikadura aholkularitza

Eusko gudariak, 35 · ORIO
(sarrera Arrantza kaleatik)

943-53 64 94
697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com
www.libegarmendia.com



K·U·K·U·A·R·R·I

ELEKTRIZITATEA

943-10 01 81 · 640 28 13 08
Zigordia, 52 beheka C · ZARAUTZ
kukuarri@kukuarri.com



LASTER DESATASCOS

- Libraketak
- Hobi septiko eta putzu beltzen garbiketa
- Uholdeetako uren hustuketa
- Teilatu hodian garbiketa
- Saneamendu sareen ikuskapena
- Puzkatutako hobien geolokalizazioa
- Ur jario atzematea
- ...

desatascos@desatascoslaster.com
www.desatascos.com
24orduz 688 88 65 36 (Larrialdia)

Abaromendi 3, 20810 ORIO · Sagar Erreka 21-A, 20590 SORALUZE · 943-75 14 31 (bulegoa)

Galdetu zain



ONINTZA LETE ARRIETA

Badira lan guztiak beti garaiz entregatzen dituzten pertsonak, eta badira azken egunera arte turboa sartzeko gai ez direnak; azken horietakoa naiz ni, beti azken momentuan dabilenetakoa. KARKARAren azken zenbaki honetan, ordea, bereziki larri ibili naiz denboraz.

Haserretu naiz neure buruarekin, eta saiatu naiz ikusten zer eta zergatik egin dudan hain trakets. Azkenean, konturatu naiz ez niola aurre egin nahi Nastya eta Luba Onyschenko ahizpek kontatutakoei; ez nuen haien istorioa idatzi nahi, mingarriegia zitzaidalako horretan pentsatzea eta horretaz hausnartzea.

Izango da azal kolore bertsua dugulako eta autoz 30 ordura dagoelako Ukrainako muga, baina nik neure burua eta neure familia ikusi ditut haien tokian, eta nire seme-alabak, onyschenkotarren iloba txikien tokian. Munduko beste gerra eta inbasioetan baino askoz biziago sentitu dut hori.

Kalean Nastya gurutzatzen dudanean, ibilkera eta begirada duin horrekin, gerraren erdian gelditu den amamaz ezer ez jakin arren, bere lana, etxea, bizimodua, dena galdu arren... benetan indar handikoa eta txalotzekoa iruditzen zait.

Eta ahizpak ezagutu ditudanetik, gehiago hasi naiz fijatzen Orioko kaleetan gurutzatzen ditudan beste bizilagun horiengan; sarriegi niretzat ikusezin diren horiengan. Eta neure buruari galdetzen diot zenbat Nastya eta Luba ibiliko diren begirada eta ibilkera duinekin —azal kolore bertsua eduki ez arren eta beren herrialdea autoz urrunago egon arren—, barruan onyschenkotarren antzeko istorioekin, norbaitek galdetu zain.

Jakin nahiko nuke, eta kontatu beharko genuke. ■■■

**ZENBAT NASTYA ETA
LUBA IBILIKO OTE DIRA
GURE KALEETAN
BEGIRADA ETA
IBILKERA DUINEKIN**

BETI ZUREKIN GIPUZKOA
943 903 450

Bertako igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango duzu gure zerbitzua.
Salbuespenik gabe.



IGOGAILUAK
ZARATAK



FOSORA JAUSITAKO
OBJEKTUEN
BERRESKURAKETA



HARRAPATZE
EGDERAK

bertako
igogailuak / ascensoros

www.bertako.eus



Iñigo Arina

TESTUA ETA ARGAZKIA: IÑIGO GAITON

Denok dugu historia pixkat bat atzean, eta Iñigo Arinak (Donostia, 1968) ere badu berea. 1980an hartu zituen lehen olatuak, eta urte batzuetan, inguruotako surflari onenetako bat izan zen, Europako txapelketetan ere parte hartuz. Garai batean surfarekin nola, musikari lotuta bizi da gaur egun, eta orduak egiten ditu DJ modura abesti artean murgilduta.

Surflari zaraustar bat Orion. Hori mailaz jaistea dela esango luke baten batek...

Kar-kar-kar... Hamabi urte pasatu dira dagoeneko bizitzera etorri nintzenetik, eta egia esan, ondo nago. Zarautzen galdu den bakea mantentzen du Oriok, batez ere udaberrietik aurrera.

Nolako surf komunitatea topatu duzu hemen?

Lagunarte polita dago surf taldearen bueltan, eta ondo dago herriko jendeak komunitate izaera horri eustea. Beste hondartza asko surf eskolekin-eta atzeritarrez bete dituzte, eta hemen ez da halakorik, zorionez. Egia esan, Orioko hondartza ez zait oso toki egokia iruditzen surfen egiten ikasteko. Oso txikia da, eta olatuek indar handia dute, bortitzak dira.

Zure hastapenak nolakoak izan ziren?

Hautzaroa Donostian egin ondoren, 12 urte nituela Zarautzera joan ginen bizitzera, aitarenekin kontuengatik. Gure auzoan ez zegoen futbol kantxarik ezta bestelakorik ere, eta surflariei begira egoten nintzen, Iñigo Timon eta beste guztiei. Lagunak egin nituen berehala: Nick Lavery, Mikel eta Xabier Troitiño, Ibon Amatriain... Oriotarrak ere baziren tartean: Javier Iturain, Luis Etxeberria, Mikel Lertxundi...

Itxas Tresnarik izan al zenuen lehen urte haietan?

Ez, Santa Martina markako taula bat probatu nuen aurrena (gerora Pukas sortuko zutenek egina). Ni surfean hasi nintzen garaian, dagoeneko Itxas Tresnak baino taula hobeak egiten ziren. Patxi Olidenek egindakoak egokiak ziren ikasteko, baina bestela, ez ziren oso finak. Dena den, ez naiz hasiko hemen, Orion, Itxas

Tresnez gaizki esaka, herritik botako nauzue bestela! kar-kar-kar.

Iñigo Timon aipatu duzu. Orion jende askok ezagutzen du.

Timon guretzat *la hostia* zen, onena. Ni baino bospasei urte zaharragoa da, eta liskar batzuk izan nituen berarekin. Ez nintzen isilik egotekoa izango 14 urterekin, eta hark egurra ematen zigun gaztetxo guztioi. Oso lagun onak egin ginen gero, eta ikaragarri ikasi nuen berarekin, uretan tokia egiten erakutsi zidan.

Zu ere surflari ona zinen, argazki eta bideo zaharretan hala ikusten da.

Hasieratik moldatu nintzen ondo taula gainean. Babesle batzuk ere izan nituen, garai hartan arraroa zen. Mundakan denda jarri zuen Craig Sage australiarrak surf taulak ematen zizkidan, Bruce Smith-ek egiten zituen. Zarautzen jendea harritu egiten zen, surf taulak debalde izaten nituelako.

Txapelketetan ere ibili zinen, ezta?

Grosen egiten zen Pukas txapelketa ezagunean, Gijonen, Santanderren... Espainiako selekzioarekin Europako hiru txapelketetan ere parte hartu nuen. Lehiatz gain, konpetizioetan egiten genituen parrandak ere ikaragarriak izaten ziren, festa latzak!

Ba al duzu buruan marka laga dizun surf saioren bat?

Itziazarren bost 360º egin nituen olatu batean. Lanzaroteke La Santa olatuan ere momentu ahaztezinak bizitakoa naiz. Kantabriako lagun batek eta biok hiru urte pasatu genituen han, primeran moldatu ginen bertako surflariekin. Esate baterako, han ezaguna den *El Goma* surflariari asko lagundu genion mutil koskorra zela, asko ikasi zuen gure laguntzarekin.

Musikaz hitz egiteko tokirik gabe geratu gara.

Musika bizio bat bihurtu da niretzat, surfa bezala. Musika jartzen orduak egiten ditut, eta oso interesgarria da egun bizi dugun garaia, Interneten milaka kantu berri plazaratzen direlako egunero. Askotan, bakarrik bada ere, momentu oso onak ematen dizkit musikak. ■■■



Telefono hautsia

ARGAZKIA ETA TESTUA: IÑIGO GAITON

Aurrenekoak bigarrenari esandako hitza denon aho eta belarrietatik pasatzen zen, bueltan-bueltan. Gauza sinplea zirudiena konplikatu egiten zen: askotan, ez ginen gai izaten hitz bera lehen ikaslearen ahotik azkenengoaren belarrira eramateko. "Etxea" bihur zitekeen "eztia" sei lagunen filtroa pasatu ondoren, guztiok barrez lehertu aurretik.

Kultur etxean sua piztu zela esan zuen batek apirilaren 22an; tximistak jo izanaren ondorioz gertatu omen zen ezbeharra, bizilagunen baten hitzetan. Azkenean, ez zen surik izan, ezta tximista-kolperik ere, zorionez.

Lasaitua hartu eta gero, etxerako bidean telefono hautsiaren jolasa izan nuen gogoan; umetan bezala, nola aldatzen ditugun notiziak ahotik ahora, eta zabaldu, tximista bezain azkar. ■■■





Orioko kale izendegian aldaketak egitea eskatu du gaztetxeak

JMPAXAI

Orioko Etxeluze gaztetxeak egin duten juizioak ez du ez hanka ez buru. Epaiketa justu batek aurrez aurre beharko lituzke garai hartako oriotarrak eta oraingo gazte horiek. Aztertu egin beharko litzateke gaia, eta zergatiak ikusi.

Gure arbasoak, XVI. mendean, nao ontzietan Ternuarako bidaia egiteko prestatzen zirenean, isilka irten nahi izaten zuten, askotan, Erregearen izenean, armadako bitartekariak azaltzen baitziren eta itsasontziak ateratzea galarazi, tripulazioari leba aplikatuz. Hori gertatzen zenean, tragedia bat zen, gizonak legediaren eta Inkisizioaren mende geratzen baitziren, beldurra hezurretaraino sartuta.

Gauzak horrela, bi aukera zeuzkaten: edo armadara joan, edo ezezekoaren baitan ekintza gogorretan sartu. Garbi dago zer gerta zekiekeen: Desakato!, eta bat edo beste hiltzeko arriskua. Kartzelaren mamua bueltaka; eta juizioaren zain, urteak eta urteak! Eta senideak? Ezin bizirik, limosnaren mende, miseriak jota. Horregatik, bizirik irauteko aukera ez ona baina bakarra armadaren esanetara jartzea zen, eta Jaungoikoari errezatzea.

Gero, itsas gudetan kapitainaren helburua izango zen, ahal zen moduan, ontziko



Adibidez, Antxiola kaleari Inude kalea deitzea proposatu dute.

herritar guztiak bizirik eta onik etxeratzea. Zer, bestela? Lehorreratutakoan, herritarren onespeneko harrera izango zuten esperantzan.

Gaur egungo ikuspegitik haiek kriminalizatu? Nor naiz ni gure arbasoak horrela epaitzeko? Mesede! Etxezarragaren hitzetan, ohiko joera izaten da aspaldiko pasarteak egungo ikuspegitik epaitzea. Horregatik, oso garrantzitsua da orduko pentsamoldea ezagutzea, testuinguruak azaltzen baitu askotan gertaeren zergatia.

Uste dut zerbait egin beharko litzatekeela Orioko herritarren aldetik, kultura mundutik eta udaletik ere. Gaurko gazte hauek garai hartako inkisidoreak dirudite.

Gora gure arbaso ausart, trebe eta herritarrak, gure ongizatearen oinarriak ekimenaren bidetik jarri zituztelako!

Bide seinalea zuzentzeko eskaera

EDUARDO BARANZANO

Orain dela urte batzuk, bide seinale bat ikusi nuen Orion, Euskotrenen geltokiko zubiaren azpian. Badakit akatsak gerta daitezkeela, baina dei batzuk egin ta gero ere (udal bulegora, diputaziora), hor dago. Atzerritarra izan arren — Gipuzkoan bizi naiz urte askoan —, euskara ikasi dut, euskara asko maite dut, eta, horregatik, min ematen dit kartel hori ikusteak. Ez dakit norena den ardura, baina dagokionak zuzendu dezala, mesedez. ■



JAIOBERRIAK

- **Ismail Muhammad Shafique.** Orion, martxoaren 21ean.

HILDAKOAK

- **Gabin Eizagirre Manterola.** Orion, apirilaren 7an. 90 urte.
- **Teresa Lopetegi Etxabe.** Aian, apirilaren 24an. 95 urte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). **KARKARAK** eskubidea du gutuna laburtzeko. **KARKARAK** ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, **KARKARAK** esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak **KARKARAK** bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alaioko Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

DOAN EZ DA DEBALDE



Euskararen plaza gara, herriaren irudia
eta komunitatearen ahotsa
ELKARREN BEHARRA DUGU

EGIN BAZKIDE

bazkide@ukt.eus 943-81 38 41



IZARRA ELEKTROGAILUAK

TOP21

Tien21

399€

ZURE KONFIANTZAZKO DENDA

BETI ZUREKIN!

499€

BETI ESKAINTZEKIN!

Eusko Gudari, 44 • 20810 Orio (Gipuzkoa) • izarraelectrodomesticos@gmail.com

AURREMA-TRIKULA

Maiatzaren 9tik 27ra

Erdi maila:

- MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO ARRETA
- MEKANIZAZIO TEKNIKARIA
- INSTALAZIOA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA

Goi maila:

- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK ELEANTZA
- MEKATRONIKA INDUSTRIALA ELEANTZA
- FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA ELEANTZA
- GIZARTERATzea ELEANTZA
- PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA ELEANTZA

Eskaintza partziala:

- DISEINUA ETA ALTZARI HORNIKUNTZA

Ziklo guztiak euskaraz hutsean

• ELEANTZA: ziklo hauetan modulu batzuk ingelesez ogituko aukera.

IZARRAITZ

Lanbide Heziketa

Guztiona, guztiontzat!

ONLINE
ikasgunea.euskadi.eus

www.izarraitz.eus

CIFP IZARRAITZ LANBIDE HEZIKETA LHII
Altamira auzoa z/g. 20720 Azkoitia (Gipuzkoa)
Tel. 943 85 21 74 • bulegoa@izarraitz.eus
688 716 482 • @izarraitz_LHII

Zer plan duzu Balearen Egunerako?




FERMIN ALONSO

"Egunean zehar egingo diren ekimenez gozatzeko asmoa dut, ikusle modura. Aurreko edizioetan ere halaxe egin nuen, eta beste urteetako oroitzapen oso onak dauzkat, asko gustatu zitzaidan antolatu zen guztia. Aurten ere ez dut parte hartuko ezertan, baina asmoa dut kalean denbora asko egiteko. Gainera, iruditzen zait oraingo honetan koronabirusak utziko digula lasai ospatzen, eta halako festez gozatzeko premia dugu denok. Gainera, balea harrapatu zen garaia kontuan izanik, uste dut badela arrazoa ospakizuna egiteko, gure tradizioarekin lotuta dagoelako. Balearen Egunaz gain, uda aldera etorriko diren beste festetarako ere gogo handia dut, pandemia dela eta, azken bi urteotan faltan bota dudalako betiko biziza soziala egitea".



ANDREA DE DIEGO

"Aurrena lana eta gero parranda, horixe da nire plana! Kar-kar-kar... Pizzeriako langileontzat kamiseta berezi batzuk egin ditugu Balearen Eguna aitzakia hartuta, lokala berezi atonduko dugu egun horretarako, eta sorpresaren bat ere izango da. Lana ondo egiteko amorratzen gaude, eta espero dugu kalean giroa egotea eta jendea ibiltzea. Gogo handia dut aurten, 2016ko Balearen Egunean atzerrian nengoelako eta ez nuelako aukerarik izan festaz gozatzeko. Inguruko lagun eta lankideak ere gogotsu daude, eta ondo pasatuko dugu, hori ziur. Negozioari dagokionez, azken bi urteak ez dira errazak izan, eta espero dugu datozen hilabeteetan mugimendu handiagoa izatea. Udaberria ondo doa, eta espero dugu uda aurrekoak baino hobea izatea, zentzu guztietan".



ERIK CUSTODIO

"Familia giroan ospatzeko egun ederra izango dela pentsatzen dut, eta horixe izango da nire plana. Lan kontuak tarteko, aurreko edizioan ez nintzen izan, eta badut gogo aurtengorako. Herriaren tradizioari lotutako festa denez, iruditzen zait polita dela umek halako egunak txikitatik gozatzea, eta haien martxan ibiliko gara, batera eta bestera. Gainera, pandemiarekin bizi izan duguna kontuan izanik, garrantzitsua da haurrek kaleko ospakizunak ezagutzea, gure identitatearen parte direlako. Izurrite garaian asko sufritu dute umek, haientzat oso gogorra izan da pandemia, eta merezi dute aurten era guztietako festez gozatzea. Guk ere bai, noski, eta Balearen Egunaz gain, aurten ondo pasatzeko aukera gehiago izango ditugulakoan nago". ■■■

Belaunaldiz belaunaldi elkar zainduz

Tere Sorondok eta Joxe Ramon Etxeberriak 2004ko udan ezagutu zituzten Luba eta Nastya Onyshchenko ahizpa ukrainarrak, horiek 6 eta 8 urte zituztenean. Orain aste batzuk, ahizpen ilobak iritsi dira Oriora Ukrainako gerratik ihesi. 6 eta 8 urte dituzte Alexanderrek eta Nataschak ere. Nastya bera Ukrainan harrapatu du gerrak, eta hilabeteren buruan iritsi da hona, 16 urteko Dima lehengusua berarekin hartuta.

Testua: **Onintza Lete Arrieta.**
Argazkiak: **Arnaitz Rubio**
Aprea.

Apirila bere hondarrera iristen ari da, hilak 26 dituelako gaur; asteartea da. Errusiako armada Ukrainara sartu eta gerra hasi zuenetik 61 egun igaroak dira, eta istorio honetako protagonistetako bati mezua idatzi dio kazetariak: "Zer moduz zaudete, Luba? Aurrekoan zure ahizpa Nastyak esan zidan astebete zeneramatela amonaren berririk jakin gabe, eta espero dut denok ondo egotea". Erantzun lasaigarria iritsi da handik gutxira: "Amonak berak deitu digu halako batean. Denak ondo daude, eta bideo-deia egina ahal izan dugu".

Ia hogeita egun atzera eginda, apirilaren 4ra, orduan ere kazetariak "zer moduz zaude?" galdetuz hasi du elkarriketa. Nastya Onyshchenko-ren (Blidcha, Ukraina, 1999) ezpaineak "ondo" esan dute, baina begiek beste zerbait diote. Baita gorputzak ere. Besaulkian postura eroria dauka. Lau egun daramatza Orion, gerra betean hilabete pasatu ondoren. Burua eta arima han ditu oraindik.

Bizimodua egun batetik bestera deseginda, gauza asko bizitzea tokatu zaio lau astean: amona Ukrainan uzteak sortu dion nahigabea, soldadu errusiarrek eta bonbek eragindako beldurra, janaria agortu ahala handitzen den frustrazioa, hildakoak ikusi beharra. "Hildako asko", azpimarratu du. "Zorionez, ez dute inor hil nire aurrean. Zorteko sentitzen naiz", aitortu du. Elkarriketaren amaieran izan da hori. Hasieran, hitzak kostata atera dira haren ahotik.



**NASTYA: "ESNATZEN
ZARA ETA TIRA, BIZIRIK
ZAUDE BEHINTZAT, ETA
HORRELA PASATZEN
DITUZU EGUNAK"**

**ONYSHCHENKO: "INOIZ
EZ NUEN PENTSATUKO
20 URTEKO MUTIL BAT
INOR HILTZEKO GAI
IZANGO ZENIK"**

Onyshchenko ez dago bakarrik kontakizuna egin duenean. Luba eta Dima anai-arrebak, Natascha eta Alexander ilobak eta Dima lehengusua ere egongelan daude. Baita Tere Sorondo eta Joxe Ramon Etxeberria ere. Azken horien etxean daude denak. "Nastya eta Luba duela hamazazpi urte etorri ziren aurreneko aldiz gure etxera, 6 eta 9 urte zituztenean, eta ordutik beti mantendu izan dugu harremana", esan dute senar-emazteek. Txernobyldik kilometro gutxira dago Blidcha, Ukrainako iparraldean, Bielorrusiako mugatik gertu. Beste hainbat haur ukrainar bezala hasi ziren etortzen uda pasatzera Euskal Herrira, eta Luba Orion gelditu zen bizitzen orain lau urte. Hemen zegoen gerra lehertu zenean, baita Dima anaia ere, oporretan. Nastya, berriz, Ukrainan bizi da, Blidchatik gertu dagoen Ivankiv hirian.

"Orion familia edukita, zergatik ez zinen lehenago atera Ukrainatik?", galdetu dio kazetariak Nastyari. "Amonagatik. Mina ematen zidan hura bakarrik uzteak". Lubak hartu du hitza orduan, eta esan du amonak hasieratik esan ziela alde egiteko herrialdetik. "'Ni zaharra naiz eta hemen daukat bizitza, baina zuek, gazteok, joan egin behar duzue', esaten zigun". Nastyaren begirada eta hitz egiteko modua bigundu egiten dira amonaz aritzean. "Haren ondoan egon nahi nuen, baina egun batean soldadu ukrainarrek esan ziguten ez geundela seguru herrian, eta alde egin behar genuela, beraiek soldadu errusiarren aurka hasi behar zutelako borrokan. Gure soldaduak zeuden herriaren alde batean, eta bestaldean, errusiarrek".

Amonari kasu egin zioten bilobek. Aurrena, Nastyaren eta Lubaren ilobak atera zituzten. Gerra hasi eta hamabost egunera joan zen Luba Oriotik Ukrainara 6 eta 8 urteko Alexander eta Natascha iloben bila. Ondoren, Nastyak 16 urteko Dima lehengusua ekarri zuen berarekin Oriora. Dimaren 12 urteko arreba ere ekarri nahi zuen, baina Ukrainako muga ez zioten Poloniara igarotzen utzi.

"Pentsatzen genuen zaila izango zela, ez daukagulako paper egokirik esaten duenik haren gurasoek niri ematen didatela alaba herrialdetik ateratzeko baimena". Mugatik berriz Blidchara eraman zuten umea. Atzera etxera itzultzea ez omen zuen gaizki hartu haurrak. Nastyak, ordea, pena handia sentitu zuen.

Eta amonari, nola esan ote zion agur Nastyak? Galdera entzun duenean, beherantz begiratu du, isilik. Ezin du hitzik egin. Segundoek aurrera egin dute. Topo egin dute begiradek, eta bienak busti dira.

Gerrako egunak

"Gerra lehertu zenean, nik ezin nuen sinetsi. Nola gerra hasi dela? Baina bonbak entzuten genituen, sua ikusi toki askotan... Bizpahiru egun pasatu zirenean, orduan esan nuen, bai bai, gerran gaude eta hau da egoera", kontatu du Nastyak. Otsailaren 24an hasi zen inbasioa, eta Ivankiven zen bera. Han egiten zuen lan eta han zituen lagunak, baita familiako kide batzuk ere. 06:30ean alde egin zuen Blidchara, ordurako bonbak entzuten zituztelako. Autoz hogei minutura dago. Han, aurreneko astean, lasai egon ziren, soldadurik gabe. Gero errusiarrek iritsi ziren, eta "ezer gabe" gelditu ziren herritarrek. "Ez zen sartzen ez ogirik ez ezer, ezin genuen deirik



egin, telebista ere ez zen ikusten...", azaldu du. "Soldaduak etortzen ziren patata eta esne bila, eta bereziki, neskak eta vodka nahi zituzten". Kazetaria ez da ausartu azken horren inguruko galderarik egiten.

"Esnatzen zara eta tira, bizirik zaude behintzat, eta horrela pasatzen dituzu egunak", gogoratu du.

"Egun batean, Dimaren aita, gure osaba, soldadu errusiarrek harrapatu zuten. Biluztu egin zuten, eta ikusi zuten sorbaldan marka bat zeukala, garai batean hezurra puskatu zuelako. Pentsatu zuten gerran zauritu zela, eta hil egin nahi zuten. Osabak azaldu zuen ez zekiela armarik erabiltzen eta, azkenean, bakean utzi zuten. Baina bere etxea erakutsi behar izan zuen. Etxe txiki bat da, eta bost pertsona bizi dira. Soldaduek esan zioten herriko etxe politena aukeratzeko. Han bizi ziren guztiak hilko zituztela, eta etxea berarentzat izango zela. Oso gaiztoak dira errusiarrak, oso gaiztoak".

Hirugarren astean herrian ezer gabe gelditu ziren. "Ezer ez zegoen, baina ezer ere ez. Ez ogirik, ez ezer. Etxean zeukatenarekin gelditu da jendea. Ez Ivankiven, ez Blidchan, ez dago ezer. Herri pila gelditu dira horrela". Lubak argazki bat dauka sakelakoan. Amonarekin ageri dira bi ahizpak eta ilobak. Han dagoen anaiaren bitartez dakite amonaren berri. Ondo dago, momentuz. Baserria du, eta han bere baratzea eta animaliak, eta horiek eman diete jaten gerra hasi denetik bai onyshenkotarrei, bai inguruko hainbati. "Amonak irina

Oriora etorri aurretik, Nastya eta Dima Onyshchenko lehengusuek hilabete baino gehiago pasatu dute Ukrainan gerraren erdian. Dima aurreneko aldiz dago Euskal Herrian.



zeukan eta horrekin ogi antzeko bat egiten du. Patata eta halakoak ere baditugu. Hamar kilo patata eman zizkien Kievetik etorritako batzuei. Ez zeukaten, eta zer egingo zuen, bada? Ume txikiarekin ondoko etxera etorri den familia bati ere bere behiaren esnea ematen dio", azaldu du Nastyak; "ukrainarrak horrelakoak gara", gaineratu du. Lubak hartu du hitza orduan. "Ez dakit lehen horrelakoak ginen; gerra hasi denetik, bai".

Poloniara joan aurretik, Ivankivera joateko aukera izan zuen Nastyak, ikustera ea hango senitartekoak onik ziren. "Familiakoak ondo zeuden, baina Ivankiv zeharo suntsituta utzi dute. Dena zegoen puskatuta eta zaborrez beteta. Errusiarrak sartzen diren toki guztiak horrela uzten dituzte. Hil diren beren soldaduak ere ez dituzte jasotzen". Nastyak azpimarratu du ikusi dituen soldadu errusiar guztiak gazte-gazteak direla, 19-20 urtekoak. "Errusiako soldaduek Ukrainatik alde ez egiteko, ez dezaten atzera egin eta desertatu, txetxeniar soldaduak joan dira atzetik. Norbaitek atzera egiten badu, hil egiten dute", kontatu du.

Orain arte pelikuletan bakarrik ikusitakoak ari dira kontatzen. "Baina hau filmeetakoa baino okerragoa da. Nik inoiz ez nukeen pentsatuko 20 urteko mutil bat gai izango zenik beste pertsona bat hiltzeko, baina ari dira, aitona eta amona hil dituzte. Zer egingo dizute, bada, horiek?", esan du, asaldatuta. "Tira, amona batzuek bai", gaineratu



du, eta gero, irribarrea ezin ezkutatuta, zera kontatu du, harro: "Amona batek soldatu batzuei esan zien otordua emango ziela eta joateko lasai bere etxera; eta, zer egingo, eta janariari arratoiak hiltzeko pozoia sartu zien. Zortzi soldadu hil zituen!". Baina istorio lazgarriak ere baditu kontatzeko: "Nire lagun handi baten amona bere etxean hil zuten. Soldaduak sartu ziren gerrako hirugarren egunean bere etxera, eta ezer esan gabe, hil egin zuten. Hantxe utzi zuten botata. Ezin da ulertu".

Blidchako egoera jasanezina egin zenean, Nastyak eta lehengusuak oinez pasatu zuten Ukraina eta Polonia arteko muga, martxoaren amaieran. Jende asko ikusi zuten herrialdetik irteten, baina baita beste asko sartzen ere. "Herriarrek beren etxeetara itzuli nahi dute", azaldu du Nastyak. Mugara iristea ez zitzaien zaila egin, Blidchatik Polonia alderako eremu osoan soldadu ukrainarrak daudelako. "Kontrol asko zeuden, baina gure soldaduak direnez, ez genuen arazorik izan". Zailena beren herritik irtetea izan zen. Hiru bider saiatu ziren, alde egitea lortu aurretik. "Gasolinarekin ere arazoak izan genituen, hamar litro inguru bakarrik genituelako. Eta autorik gabe ezin dugu alde egin. Autoan hiru ordu pasatu genituen arbola tartean, hiru ordu!".

Google Maps-en arabera, 3.134 kilometro daude Blidcha eta Orio artean, eta 32 orduko bidaia da autoz. Irungo mugan elkartu ziren bi ahizpak, etxerako azken kilometroak elkarrekin eginez.

Elkar babestuz

Onyshchenko ahizpek beti izan dute beren amonaren babesa Ukrainan, baita Etxeberriaren eta Sorondoren babesa ere, Orion.

Sei haur eskolaratu dituzte Aian eta Orion

TESTUA: AITZIBER ARZALLUS

Aste Santuko oporraldiaren aurretik, gerratik ihesi etorritako sei haur eta gaztetxo ukrainar zeuden matrikulatuta Aiako eta Orioko eskoletan: bi Aiako Lardizabal Herri Eskolan —LH1 eta LH5—, bi Orioko Herri Ikastolan —LH1 eta LH3— eta beste bi Zaragueta Herri Eskolan —HH5 eta LH5—.

Errefuxiatuak jasotzeko protokolo berezirik ez du zehaztu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak: matrikulazio kanpainatik kanpo hasten diren

gainontzeko umeekin bezala jokatu dute ume horiekin ere, besteei ematen dieten laguntza bera emanda, hau da, egokitzen pixkanaka egiteko aukera, ordutegietan malgutasuna, hizkuntza errefortzu eskolak eta abar.

Material espezifikoak

Dena dela, oraingoa horren egoera berezia izanik, Berritzeguneak Ukrainari buruzko material espezifikoak helarazi die eskolei, eta Hezkuntza Sailak formakuntza

saio txiki bat ere eman die irakasleei. Gainera, ikasle errefuxiatuei eskolak ukrainieraz jasotzen jarraitzeko aukera eman diete.

Kontuak kontu, Ainhoa Zumeta Zaraguetako zuzendariaren arabera, ez dute batere argi ume horiekin nola jokatu behar duten, alegia, murgiltze sisteman sartu behar dituzten edo ez, ez dakitelako zenbat denborako kontua izango den. Zumetaren esanetan, badira herrian Ukrainatik etorri diren ume gehiago ere, baina oraindik eskolaratu gabe zeuden Aste Santuko oporraldiaren atarian.

**LUBA ONYSHCHENKO:
"OSO ARRAROA DA
JOXE RAMONEK ETA
TEREK EGIN DUTENA.
KRISTOREN BIHOTZA,
ARIMA EDUKITZEA DA"**

**LUBA ONYSHCHENKO:
"ZORIONEZ ABIZEN
BERA DUGU ILOBEK ETA
NIK. ARAZORIK EZ NUEN
IZAN HAIEK UKRAINATIK
EKARTZEKO"**

Familia garrantzitsua da, are gehiago gerra bezalako muturreko egoeretan, eta horregatik, beraiek ere ez dute zalantzarik egin familiako gazteenak zaintzerakoan. Luba, esaterako, bi aldiz pentsatu gabe atera zen Oriotik Ukrainarantz Ander lagunarekin eta Dima anaiarekin iloben bila. Halako batean lortu zuen Poloniako muga pasatzea —aurreneko muga ez zieten utzi pasatzen, mugatik gertu misilak botatzen hasi zirelako; beste mugara joan, eta hura itxita aurkitu zuten; hirugarren muga lortu zuten pasatzea— eta gerra betean zen Ukrainan sartu zen, martxoaren 12an.

Aurrez, Ivan anaiak umeak mugara eramateko modua aurkitu behar izan zuen. "Bidea ikasi behar izan zuen, herritik ateratzea arriskutsua zelako, eta basotik barrena egin zuten", azaldu du, baina xehetasun gehiago eman gabe. Mugara iritsi ziren gurasoak eta haurrak, eta amak erabaki zuen ez zuela senarra bakarrik utziko Ukrainan —gerra dagoenez gizonezko helduek ezin dute herrialdetik irten—, eta han gelditu zen. Beraiek zortzi ordu egin behar izan zituzten ilaran muga. Oinez ziren. "Asko ume txikiekin zeuden, denak irten eta irten. Zorionez, abizen bera dugu ilobek eta nik, eta ez genuen arazorik eduki, bestela...". Irteterakoan, hala ere, arduradunak Natascha ilobari eskatu zion amari deitzeko, "ziurtatzeko ni izeba nintzela eta nirekin zetozela bazekitela gurasoek. Izan ere, tranpa asko dago orain. Polonian, berriz, ez ziguten ezer galdetu", kontatu du Lubak. "Pixka bat gogorra izan zen gurasoentzat umeak gurekin uztea, baina tira". Oriotarrek emandako laguntza azpimarratu nahi du, "bidaiaiko gastuen erdiak herritarrei esker ordaindu ditugulako".

Onyschenkotarren ilobak Luba eta Nastya aurreneko aldiz etorri ziren adin bertsuan etorri dira, eta horrek oroitzapen asko berpiztuarazi dizkie Sorondori eta Etxeberriari. "Hegazkinetik jaitsi zirenean sentitu genuen emozioa ikaragarria izan zen. Hain ziren politak! Gainera, bi neska. Hori bai, oso bihurriak; txikia behintzat bai. Oso mugitua zen", kontatu du Sorondok.

Hemengo familiaren eskuzabaltasunaz galdetuta, Lubak goxo hitz egin du: "Oso arraroa iruditzen zait Joxe Ramonek eta Terek egin dutena: kanpoko ume batzuk hartu eta hainbesteko maitasuna eskaintzea eta horrenbeste laguntzea. Hori da jendeak kristoren arima, bihotza edukitzea". Sorondok esan du ez beraiek bakarrik, hemengo familia osoak maite izan dituela asko hasieratik eta onartuak izan direla beti. Etxeberriak ere bihotzez hitz egin du: "Txikitan ez horrenbeste, baina hazi ahala konturatu dira; guri ere maitasuna ematen digute, eta guretzat saririk handiena hori da, ikustea pixka bat gure sentitzen direla eta bueltan jasotzen dugula maitasuna".

Helduek hitz egiten duten bitartean, batera eta bestera dabilta Natascha eta Alexander txikiak. Aurpegiera serioa dute, baina azkar argitzen zaie begirada goxoki baten aurrean edo margotzeko pintura bat ikusiz gero. Orioko Ikastolan hasita daude, eta "ederki" moldatu omen dira han; gustura joaten omen dira. Hemen bizitzeko urtebeteko baimena dute oraingoz, eta bi familien babes eta berotasun guztia. Baina hizki larri



idazten den historiak bezala, bizitza umilenek ere mila buelta eta abentura ematen dituzte, eta zeinek jakin non eta nola jarraituko duen historiak onyschenkotarrentzat.

Alexanderrek eta Nataschak ez dakite euskaraz oraindik, baina LH1 eta LH3 mailetan hasi dira, Orioko Ikastolan.

Gerratik ihesi Oriora eta Aiara

Gerra hasi denetik hona, ia bikoiztu egin da Orion errolatuta dauden ukrainarren kopurua: hamazazpi zeuden lehen, eta 32 dira orain –apirilaren 8ko datua da–. Hogeita hiru lagun iritsi dira azken asteetan, sei familia guztira —horietako bat kide bakarrekoa—. Denen artean zazpi adingabe etorri dira herrira. Aian, ukrainar bakarra zegoen errolatuta gerra hasi aurretik, eta zazpi

daude orain, tartean lau adingabe.

Orioko Gizarte Zerbitzuetako arduradunak azaldu duenez, udalaren zerbitzu horretan protokolo bera dute herritar guztientzat, haien jatorria edozein dela ere eta etorreraren arrazoiak bat ala bestea izan. "Guk orientazioa eta informazioa eskaintzen dugu, bakoitzaren egoeraren diagnostikoa egin ondoren. Laguntzak jasotzeko sei hilabetez errolatuta egotea derrigorrezkoa denez,

laguntzak behar dituztenak CEAR eta Gurutze Gorrira bideratzen ditugu, batez ere aurreneko erakundera, hark kudeatzen dituelako aterpetxeak eta". Oriora etorri diren errefuxiatuek ez dute etxebizitza beharrik momentuz, familia edo lagunak etxeetara etorri direlako. Pertsona denei harrera bera egin arren, udal langileak azaldu du Ukrainatik datozenak zuzenean ari direla egiten asilo eskaera Polizia Nazionalaren egoitzan. ■



Talaiatik

Orio, erriora eta itsasora begira egon den herria dela askotan entzun dugu. Arrantza, familia askoren, lagun eta herritarren bizibide izan da. Bapore edo arrantzontzien karroak sarek bete, eta herriko kaleetan zehar taldean bultzaka aritu den herria izan da gurea. Tarratadun sareak moila gain, kofradia edo palotan josi dituzten itzalpeko emakumeen lanari esker, aurrera atera dena. Txikotak erriatu, libratu eta askatu dituen herria da Orio.

Oriotar izateari harrotasuna eman dion historia da mila bederatzieun ta lehenengo urteko balea harrapaketa hura. Hizkuntzak berak, euskarak, bizibide eta ogibideek, herriko kirolek, kantuek, dantzek eta ohiturek sortzen dute oriotar identitatea. Ahoz aho eta

belaunaldiz belaunaldi gaur arte iritsi diren Lertxundiren kantuan jasotako balearen bertsoen kronika bezalakoei sortu dute gure izaera, gure nortasun kolektiboa; eta aurtan, gure-gurea sentitzen dugun festa ospatzeko aukera izango dugu. Maiatzaren 14a gainean dugu eta Oriotar nolakotasuna ematen dion eta ondare kulturala den balentria handia ekarriko dugu gogora egun horretan. Pasa den urtean behar zuen Kantauri itsasoan arrantzatu zen azken balearen

**ORIOITAR IZATEARI
HARROTASUNA EMAN
DION HISTORIA DA
1901. URTEKO BALEA
HARRAPAKETA HURA**

harrapaketa ospakizunak, baina urtebete beranduago bada ere, eta erlojuaren aurka antolatzeak dituen zailtasunak medio, txikitasunetik, baina ilusio eta gogo biziz, festa handia berrartu eta egikaritzeko aukera izango dugu.

Ostiralek hasiko da asteburuan zehar luzatuko den festa handia, ikastetxeetako ikasleen kantu jirarekin. Iluntzean, berriz, Benito Lertxundiren kantaldia izango da. Berak egin ditu Euskal Herri osoan ezagun Orbegozo Zumaian zegoen apaiz oriotarraren bertsoak eta sarrera guztiak saldu diren abiada ikusita, ziur naiz herritarrak gogotsu daudela Lertxundiren kontzertuaz gozatzeko. Larunbatean ospatuko da balea arrantzaren 121. urteurrena. Goizean

HAUXE BAI JENEROA!



goizetik, ez da girorik faltako. Musika eskolako txistulari, trikitilari, Harribileko dantzari eta Salatxoko kantuen doinu goxoek girotuko dute beste behin aurtengo maiatzaren 14a. Orain gutxi arteko egoerak, azken edizioetako herri antzerkia ezinezko bihurtu badu ere, eta beatzik aldian ez bada ere, talaioaren oihu eta kanpaiek herria esnatuko dute, zerbait handia denaren esperoan. Igandez amaituko da festa luzea, "musika joz herria egin duen" eta egiten diharduen Martin Peronari Andoaingo musika bandak, herriko musika bandarekin batera, egingo dion omenaldiarekin.

Berezia izaten da egun honetan sortzen den giroa eta herritarrek duten parte-hartzea, herritar guztiek, saregile,

marinel eta baserritar arropak soinean jantzita hartzen duelako parte. Aurten ere, festan parte hartzera gonbidatu nahi ditugu herritarrak. Bide batez, festa honen antolaketara etorri diren eta parte hartuko duten herritar eta eragileak ere eskertu nahi nituzke.

Jantzi dezagun herria, apaindu ditzagun azken urte hauetan hainbatetan arnagune izan zaizkigun balkoi eta leihoak. Beste behin, har ditzagun kaleak. Izan gaitezen ginena, izan nahi dugunaren helduleku izateko eta eratu dezagun etorkizuneko oriotarron nortasun kolektiboa. Jarraitu dezagun tarratadun sareak josten eta txikotak askatzen. Jarraitu dezagula, bihotzez pozturik atsegin handiz eta noski, beldurrik gabe, gora oriotarrak esaten. ■■■

NIRE HONETAN



RIKARDO UZKUDUN

Balearen Eguna, Biziberritze plana, Oinherri ekimena, sanpedroak.... Elkarrengana bildu eta elkar igurtzeko garaiak heldu dira halako batean, bagenuen premia.

Bada beste kontu bat ordea, elkarbizitzaren ezinbesteko parte dena: bizitzea bera. Urte bete besterik ez da geratzen legealdia bukatzeko, eta pandemiaren aurretik izan zen arren, akordatuko zarete udalak herriko familien ekonomiaz egin zuen lanaz. "Pobrezia, desberdintasunak eta gizarte-bazterketa Orion" zuen izenburua eta bi ondorio nagusi ateratzen zitezkeen handik: bat, etxebizitzaren %10etan, 200 etxebizitza ingurutan, pobrezia eta gabezia egoera larriak jasaten dituzte; eta bi, pobrezia larriari dagokionez, Gipuzkoaren eta Autonomia Erkidegoaren ehunekoa bikoiztu egiten du Oriok.

Ez dakit zertan diren Munto aldean eraiki behar dituzten alokairu sozialeko etxebizitzak, ez dakit zertan den alokairua mugatzeko legea... Dakidana da etxe batzuetan, familia batzuek, hilero-hilero, etxebizitza zaharrak errenta berrien prezioan ordaintzen dizkietela beste familia batzuei, itute eta lehioetako zirrikitu eta guzti, alokatzeko Urola Kostako bigarren herririk garestiengan (2020ko urteko datua, AME). Han eta hemen, garesti dago bizitza, batzuentzat.

Pentsa, lehen merke ez bazegoen, orain. ■■■





USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA

Aurrematrikula Maiatzaren 9tik 27ra



Administrazioa eta Kudeaketa



Energia eta Ura



Instalazioa eta Mantenua



Fabrikazio Mekanikoa



Elektrizitatea



Hartu hitzordua!!

📞 943-36 46 00

www.lhusurbil.eus

KIN DAGO KARKARA?



Karkara pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna karkara@karakara.eus e-posta helbidera bidali maiatzaren 20a baino lehen.
Saria: DANA Yoga eskolaren eskutik, 2 bonu. Karkara komunikazio taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.



Apirileko Karkara aldizkarian Karkara pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen. 20. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta **Nere Manterola** bazkidea izan da irabazlea.





ZARAGUETA HERRI ESKOLA

Euskararen balioaz

OLATZ MITXELENA EUSKARA IRAKASLEA

Olatz Mitxelena Larreta oiartzuarra da, 1989an jaioa, Filosofia ikasi zuen eta euskara irakaslea da Zaragueta eskolako Bigarren Hezkuntzan.

Idazle, irakasle edo bidaiari?

Hirurak ditut gustuko eta hirurak dira nire parte. Idazlearena berriagoa da; orain arte irakasletzat nuen nire burua eta kito. Bidaiak arnasa dira niretzat.

Zure ikasle batek idazlea izan nahi duela esango balizu, zein aholku emango zenioke?

Asko irakurri eta asko idazteko. Baina, batez ere, egiteko: nahi duen hori egiteko; baimena emateko bere buruari idazteko.

Irakurtzeko grinak idazteko zaletasuna dakar? Edo aldrebes?

Ez du zertan. Irakurtzeak ez dut uste zuzenean idazteko gogoia dakarrenik, baina idazteko ezinbesteko lehengaia da irakurketa.

Idazteko leku, une eta ordu perfektua?

Gure etxeko egongelako mahaia, goiza. Giro atsegineko taberna edo kafetegi bat ere izan liteke. Ondoan kafe bat, beti.

DBHko irakaslea zara. Nola ikusten duzu gazteen jarrera euskal kulturekiko?

Orokorrean kultura gutxietsia dagoela esango nuke eta, gure kasuan, hizkuntza bera ere gutxietsia dugunez, euskal kultura modu bikoitzean dago gutxietsia. Euskal herritarrok ahalegina egin behar dugu euskal



kulturara ailegatzeko, lehenengo eta esfortzurik egin gabe iristen zaiguna kultura espainiarra, frantsesa edo beste erdararen batekoa delako.

"Euskaraz bizi garenok altxor bat dugu". Zergatik?

Uste dut presentzia askoz handiago eman behar litzaiokeela euskarari: mundua eta bizitza aberasten dizkigu. Zoriontsuago egiten gaitu. Euskaraz bizi garenok badugu aukera mundua eta bizitza aberasteko modu batekin gozatzeko, hizkuntza bakoitzak beste leihio eta beste mundu bat irekitzen duen neurrian. Euskarari bizkarra ematen dionak mundu hori galtzen du. Geure buruaren kontra ari gara euskarak zabaltzen digun munduari muzin egiten diogunean. ■

"EUSKARAK MUNDUA ETA BIZITZA ABERASTEN DIZKIGU. ZORIONTSUAGO EGITEN GAITU"

ITXASO LOPETEGUI
UNAI LARRAÑAGA

Eutanasia noiz ontzat eman

Gaur egun eutanasia ez dago munduko herrialde guztietan legez onartua. Espainian, esaterako, eutanasia duela gutxi onartu dute. Hori dela eta, hitz egiteko gai aproposa iruditzen zaigu. Gu eutanasia legeztatzearen alde gaude, baina ez dugu uste edonorentzat izan beharko lukeenik. Beraz, zein egoeratan eman daiteke ontzat eutanasia?

Eutanasia sufrimendu handia eragiten duen gaixotasun sendaezin bat duen pertsona baten heriotza nahita eragiteko ekintza litzateke. Horregatik, egoera berezi batzuetan eman ahal izango da, esaterako, sufrizten ari den pertsonak bere egunerokoan uneoro zainzaile baten pean egon behar duenean. Horrelakoetan ontzat emango genuke, horrenbestez.

Ez gaude ados, ordea, depresioak jota dagoen pertsona bati eutanasia ematearekin; izan ere, jende asko dago depresioa gainditu duena, gaixotasun hori sendagarria baita. Eutanasiak gaixotasun sendaezina duten pertsonentzat soilik izan beharko luke: tetraplegikoentzat, ELA dutenentzat eta abar.

Ondorioz, guk uste dugu eutanasia mundu osoan onartu beharko luketela, eteni gabe sufrizten ari diren pertsonak lasai eta sufritu gabe hil daitezen, pertsona orok heriotza duina izateko eskubidea du eta. ■

XIII. mendeko Orioko balea



IÑAKI ITURAIN iiturain@gmail.com

ARGAZKIAK: IÑIGO GAITON ETA UTZITAKOAK

Maiatzaren 14an, euskal kirolak badu zer gogoratu: egun horretan, 1943an, Urtain harri-jasotzaile eta boxeolaria jaio zen, Arroan; 1957an, Marino Lejarreta txirrindularia, Berrizen; eta 1980an, Martin Zabaleta hernaniarrak euskal mendizaletasuna eraman zuen lehenengo aldiz Everesteko gailurreraino, eta ikurrina jarri munduko mendirik garaieneko tontorrean.

Euskal arrantzak eta bertsolaritzak ere badute oroimenerako aukera: 1901ean, Bizkaiko golkoan harrapatu den azken balea ekarri zuten moilara Orioko arrantzaleek, eta herriko bertsolariak bertsoak jarri zizkion balentriari. Horrek aukera ematen digu orain guri, 121 urtera, egun hartakoa gogoratzeko eta ospatzeko: "Mila bederatzireun ta lenengo urtian, maiatzaren amalagarren egunian, Oriyoko erriko barraren aurrian, balea agertu zan beatzik aldian".

Udallerria sortu baino lehenagoko balea

Orain jakin dugu duela 800 urte inguru Oria ibaiaren itsasadarrean bizi zen komunitate txikiko bizilagunak ordurako hasiak zirela baleak harrapatzeko lanbidean. Orioko

Udalak eskatuta, Suediako Uppsala Universitet-eko ikertzaileek Orioko erriean aurkitutako balea baten hezurra aztertu dute karbono proben bidez, hezuraren datazioa jakiteko. Ingeleseztan eta euskaraz bidali duten txostenean, diote balea hezurra XIII. mendekoa dela, 1253 eta 1296 urteen artekoa. Orioko hiribilduaren sortze ofiziala XIV. mendekoa da, 1379koa; beraz, herria ofizialki sortu aurretik harrapatu zuten balea hura. Ordurako bazebiltzan baletan.

Iñaki Agote 1980an zinegotzi zenak adierazi digu, orduan, aurten bezala, dragaontzi bat errikoa garbitzen ibili zela; eta Xixario jatetxearen aurre horretan, ibai hondoko lokatzarekin batera arroka puska berezi samar bat atera zutela; justu 1901eko balea lehorreratu zuten arranplatik gertu. Pentsatu zuten balea haren hezurra izan zitekeela. Donostiako Aquariumeko presidente Jose Manuel Sustetak baieztatu zuen baleanhezurra zela. Hezur hura urtetan egon zen ikusgai, arpoi batekin batera, Bordatxo atzealdeko txoko horretan, baleen harrapaketari buruzko azalpena ematen zuen plaka baten ondoan. Hezur horren lagina da udalak iaz Suediara bidali zuena, datatzeko. Zientziak gaur egun dituen

baliabideekin, orain posible izan da hezurra noizkoa den jakitea.

Oriotarrentzat, mende askotako historia oso aberatsa da balearena. Horren jakitun, gaur egun ere inportantzia sinboliko handia du herrian; eta aurtengo maiatzaren 14an ere Oriok gogora ekarriko du 1901eko gertaera.

Balea bizirik herrian

Oriok leku askotan gordetzen ditu animalia haren oroigarriak: Goiko kaleko etxe batzuen armarrietan, kale baten izenean, elizan, udaletxeko batzar aretoan, elkarte gastronomikoetan, bertsoetan... 2001etik hona bost urtean behin herrian ospatzen dugun festa handian eta herritarren gogoan eta bertso kantatuetan.

Goiko kalerako eskaileretako Gure Etxea elkarteak, sabaitik zintzilik balea harrapatu zuten bost traineruen erreplika txiki bana dago, bakoitzak ontziaren eta patroien izenak dituela: *Trinidad* izeneko traineruan, Manuel Olaizola; *San Antonio*-n, Manuel Loidi; *Maria Jose*-n, Xixario Uranga; *San Jose*-n, Eustakio Atxega; eta *San Juan*-en, Gregorio Manterola.

Oriok baleari ematen dion garrantzi sinbolikoa nolakoa, halakoa izan zen mendez mende haren harrapaketak herritarrentzat izan zuen balio

ekonomikoa ere. XVI. mendean euskaldunak izan ziren munduko balea arrantzale nagusiak. Selma Huxley izan da gai hori ondoen aztertu duen ikertzailea. Huxleyk zioenez, 1560-1570eko urteetan jo zuen goia euskal arrantzaleen Ternuako balea harrapaketak. Urte haietan 30 itsasontzi joan ziren Lapurdi eta Gipuzkoako portuetatik Ternua aldera baletara, barruan 2.000 gizon zituztela. Ikertzaileak dio euskal portuetatik osasun oneko gizon gazte ia guztiak joaten zirela Ternuara. Oriotarren kasuan, zenbait arrantzalaren izenak aipatzen ditu: Jauregieta, Francisco, Domingo Segura, Joan Agirre...

Bederatzi hilabeteko espedizioa egin ohi zuten arrantzaleek Amerika aldean, eta negu hasieran etxera itzuli. XVI. mendeko hamar urteko tarte hartan 400 balea inguru harrapatu zituzten, eta haietatik 20.000 upel olio atera. Olio argiteriarako erabiltzen zuten, ugaztunaren bizarrak kortseterian, eta hezurak eraikuntzarako. Dena zuen erabilgarri baleak. Orioko historia aztertu zuen Antxon Agirre Sorondok zioen Orion balea bat harrapatzea loteria tokatzea bezalakoxea zela, festa handi bat, ematen zituen irabaziengatik. 1901ekoa ere halaxe izan zen. Mundu guztiko



Udaletxeko batzar aretoan, baleak asko janzen du giroa. Balearen beirazko irudi argitsua ezinbestekoa izan ohi da ospakizunetako argazkietan.

toki gutxitan aterako zioten etekin handiagoa balea bati Orion baino. "Tiñako sei pezetan izan zan saldua". Balea hura ikustera sekulako jendetza bertaratu zen Donostia aldetik, sei urte lehenago (1895) estreinatutako trenak ekarrita; eta garai hartako ostalariek ere diru sarrera ederra egin zuten egun haietan.

Ternuako epopeia hartan, urte batzuetan, negua eta izotza



Hauxe da XIII. mendean oriotarrek harrapatutako balearen hezurra, urteetan Xixario jatetxearen aurrean ikusgai egon zena.



Jose Etxeberriak egurrean tailatutako balearen arrantzaren irudi eder hori ere, udalari dohaintzan emana, udaletxeko batzar aretoan dago.

aurreratu eta etorri ezinik bertan geratu behar izan zuten. 1576ko negua bereziki gogorra gertatu zitzaizen Ternuan geratutako euskaldunei, 300

arrantzale inguru hil ziren bertan, Jose Mari Unsain historialari aiarrak *Balleneros vascos* liburuan dioenez. Josu Etkezarragak martxoaren 30ean

Arraunetxan emandako hitzaldian esan zuen XVI. eta XVII. mendeetan Ternuara joaten ziren arrantzale oriotarretatik, urtero, batez beste, bi ez zirela itzultzen etxera, joan-etorrian galtzen zirela, edo hango lan gogorretan. Horrek bakarrik ondo adierazten du oriotarren balea arrantzaren tamainaren zenbaterainokoa.

Asturiasko Candas herritik hainbat aldiz etorri ziren Oriora arrantzale bila; 1571ko dokumentu baten arabera, urte hartan hamasei arrantzale kontratatzeko asmoa zuten, baletara joateko; bi bakarrik lortu zituzten, aita- semeak, Orioko gainerako arrantzaleak Ternuako arrantzategietan zebiltzalako. Urte hartako urriaren 22an lortu zituzten, handik itzuli zirenean.

Kolon baino lehenago Amerikara

Jose Mari Ertzilla oriotarrak dio euskal balea arrantzaleak Kristobal Kolon baino lehenago izan zirela kontinente amerikarean. Orain topatu duten 1647ko *Us eta coutumes de la mer* liburuak ere horixe dio. Etienne Cleirac-ek idatzia da, garai hartako Bordeleko parlamentuko abokatu batek. Baleen arrantzari eskaintzen dion zatian dio euskaldunak Kolon baino 100 urte lehenago



1901eko argazkian, balea, arrantzaleek lehorreratu zutenean; balearen harrapaketa nola gauzatu zen kontatzen duten bertsoek inguratuta.



Balea elkarreak, nola ez, izena eman zion balea du bere irudi izarra.

iritsi zirela Ameriketara; eta hain zuzen, euskal arrantzale batek eman ziola Koloni Atlantikoaren beste aldeko lurraldearen berri, euskaldunek *Lur Berria* izendatzen zutena.

Euskal epopeia haren barruan, oriotar askok izan zuten beren lekutxo. 1584ko Eguberri egunean Joanes Etxanizek, hil aurretik testamentua egin zuen, mediku zarauztar batek idatzita. Dokumentu huraxe zen orain dela urte gutxi arte Kanadan gordeta zeukaten idatzi zaharrena. Geroztik, artxiboetan beste bat topatu zuten urte batzuk lehenagokoa; hura ere oriotar baten testamentua: Juan Martinez Larrumerena, 1577koa.

Otsailaren 23an Xabier Alberdi zarauztarrak Arraunetxan emandako *Oriotarrak itsasoan barrena XVI. mendean* hitzaldian, Iñaki Arrillagak kontatu zuen behin oporretan Quebec-eko museo batean sartu, Kanadako Zibilizazioarenean, eta stand batean hantxe topatu zuela Joanes Etxaniz ohean etzanda zegoen errepresentazio bat, eta nola hunkitu zen, ia 450 urte lehenagoko herrikide bat han topatuta. Gizon haren irudia *National Geographic* aldizkarian ere agertu zen.

XVI. mendeko Orioko etxeak

Orioko biztanleriaren berri ematen duen errolda zaharrenetako batean (XVI. mendekoa), 67 etxe ageri dira. Ondoko hauek oraingo etxeen oihartzuna dakarkigute: Lusarbe, Etxeberria, Zalaiko Etxeberria, Lizargarate, Erreiztaetxea, Azperro, Aldape, Etxaniz, Gallaberro, Agandururena, Errezabal, Matxinekoa, Torreo, Saria, Sariako Ola, Segurarena, Torrelloietia, Urdairerena, Garmendia, Eleizondo, Endaiarena... Etxe horietan sortutako mutilak izango ziren noski balea arrantzale oriotar haietako asko.

XVI. mende loriatsuaren ondoren, arrantzale ingeles eta holandarrek euskaldunei

arrantza teknikak ikasi eta lekua kendu zieten, eta euskaldunak Europa iparraldera joaten hasi ziren, Norvegia, Groenlandia eta Islandiara.

Ia 800 urteko historian, hamaika ekaitz eta ezbehar izan zituzten; arrantzale askok galdu zuten bizia, ehunka oriotarrek ehunka balea harrapatu zituzten, baina itzal, ospe eta zeresan gehien Orioko azken baleak lortu zuen, beste guztiek batera baino gehiago. Zergatik? Balea hari norbaitek bertsoak jarri zizkiolako: "Gertatua jarri det egiyaren alde, au orrela ez bada jendiari galde, biotzez pozturikan atsegintsu gaude, gora oriotarrak esan beldur gabe". ■■■



"Bost traineru joan ziran patroi banarekin..." Balea, traineruak, arrantzaleak, herritarrak lehorretik bibaka, poza, harrotasuna... Dena batera, kultur etxearen atzealdeko plazatxoan.

Euskara, ikasgelatik herrira

Badira hamahiru urte Orion AEKren Mintzalagun programa abian jarri zutela. Helburuak: euskaldun berrientzat euskaraz aritzeko inguruak sortzea eta ikasleen eta herritarren arteko bizikidetza euskalduna bultzatzea. Egitasmoaren koordinatzaileek eta parte hartzaileek azaldu dituzte haren nondik norakoak.

Testua: **Aritz Pardina.**
Argazkiak: **Iñigo Gaiton.**

Gaur egun ezagutzen dugun Mintzalagun programa AEK Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak abiatu zuen 2007. urtean. Baziren, ordurako, zenbait aurrekari: esaterako, Bizkaiko Berbalagun programa, baita beste lurraldeetan abian zeuden antzeko programak ere. Gipuzkoan ere bazen tankerako egitasmo bat; 1993an sortutako Donostiako Mintzalaguna, hain zuzen. Amaia Olazabal AEKko Urola Kostako arduradunak azaldu duenez, AEK aspalditik zebilen halako egitasmoak antolatze gogoz eta, asmo horri jarraituz, 2007. urtean, proiektua aurkeztu zion Urola Kostako Udal Elkarteari. Aurrekontua onartuta, 2008-2009 ikasturteko urtarilean hasi zen Mintzalagun programa eskualdean: sei hilabeteko proba pilotua egin zuten eta, arrakasta ikusita, gaur arte jarraitu du etenik gabe.

Mintzalagun programa, finean, mintzapraktika da. Lurralde bakoitzak koordinatzailea du, eta hark du udalerrietan taldeak osatu eta kudeatzeko ardura. Taldeei dagokienez, haietako bakoitzean euskaldun zahar batek parte hartzen du; hark *bidelagun* papera du. Euskaldun berriei, berriz, *bidelari* deitzen zaie. Helburua da pertsona horiek astean behin elkartzea, ordubetez euskaraz egin dezaten. Hala, egunerokotasunetik gertuago dagoen bizipena



eskaintzen diete euskaldun berriei; hots, eskolatik kanpo ere hizkuntza lantzeko aukera.

Izan ere, hizkuntza guztietan gertatu ohi denez, jauzi handia dago euskaltegiak eskaintzen duen oinarri teorikoaren eta kaleko jardunaren artean, eta hori izan ohi da ikasleen erronka handiena: "AEKn bagenuen sentsazioa ikasleek ikasgelan praktikatzen zutela euskara, baina kalean ez zutela naturaltasunez euskaraz egiten. Askori kosta egiten zitzaion kalerako pausoa ematea". Ikasleen inguru euskaldun bakarra euskaltegia zen, eta koordinakundeak muga horiek zabaldu nahi izan zituen. Xedea, hortaz, ez zen euskara praktikatzea bakarrik: "Proiektu hau ikasleen eta herritarren artean zubi lana egiteko sortu zen. Euskaraz bizitzea jarri zen erdigunean, eta gure asmoa zen ikasleei euskaraz bizitzen laguntzea", azaldu du Olazabalek. Hark uste du Urola Kosta "oso eskualde egokia" dela horretarako; hala ere, euskaltegiko ikasleentzat, baditu euskalkiari lotutako ohiko zailtasunak. Haiek arintzea du AEK-k helburu.

Erabilera erdigunean

Aipatutako jomuga horiei jarraiki, Amaia Zaldua irakaslea da aurten Mintzalagun programaren arduraduna. Lau talde osatu dira aurten Orion: bi bikote eta bi hirukote. Aian, berriz, ez dago talderik.

"PROIEKTU HAU IKASLEEN ETA HERRITARREN ARTEKO ZUBI LANA EGITEKO SORTU ZEN"

"EUSKARAZ BIZITZEA JARRI ZEN ERDIGUNEAN, ETA ASMOA ZEN IKASLEEI HORRETAN LAGUNTZEA"

Ikasturte honetan bezala, 2019-2020 ikasturtean ere Zaldua aritu zen Urola Kostako arduradun lanetan. Horrenbestez, pandemiaren aurretiko eta ondorengo faseak bizitzeko tokatu zaio. Testuinguru horretan, programaren balorazio ona egin du: "Orioko egoera ona da, beherakada egon baitzen pandemiaren ondorioz, baina orain, izurriaren aurreko kopurua gainditu egin dugu".

Irakaslearen aburuz, gorakada horren atzean ikasleen gogoia dago. Izan ere, taldeek autonomia handia dute, eta sarritan arduradunaren beharrik gabe antolatzen dira: "Kideek nahiko konfiantza badute bakoitzak zer sentitzen duen adierazteko, gauzak nola egin nahi dituzten azaltzeko, baita horren arabera erabakiak hartzeko ere". Gainera, pandemia garaian bezala, ikasturteko epeetatik kanpo elkartzen diren taldeak ere badaudela esan du Zalduak. Esaterako, zenbait talde asteburuetan edota udan ere elkartzen dira. Horrek erakusten du dinamika ez dela ikasketa kontu soila. Aitzitik, euskaltegiaren osagarria bada ere, esanahi sakonagoa du.

Zentzu horretan, Olazabalen ildo beretik mintzatu da Zaldua: "Gure ikuspegia ez da euskaldun berrietara mugatzen: gure helburuak zabalagoak dira. Azkenean, guztiok irabazten dugu honekin". Integrazioa da programak bultzatu nahi duena, hots, harreman euskaldunak oinarritik sortzea: "Gure xede nagusia jendea euskaltegitik kanpo ere euskaraz bizitzeko da. Harreman-sareak sortzeko aukera izan daiteke Mintzalagun programa, jende berria ezagutzeko eta, gainera, hasieratik, euskaraz". Horregatik, irakaslearen iritziz, "Mintzalagun programak, euskaltegiaren osagarria baino, herriaren osagarria izan beharko luke".

Alde txar bat azpimarratzearren, Zalduak azaldu du ez duela "nahi bezainbeste" gaztek parte hartzen. Hala, programan parte hartzen duten gazteenek 26-27 urte izan ohi dituzte, aurten adinaren batezbestekoa jaitsi egin den arren.

Datozen urteei begira, Zalduak praktikotasunaren aldeko aldarria egin du, harentzat hor baitago euskalduntze prozesuen muina: "Erabileran jarri behar da fokua, hori delako emaitza onak ematen dituen". Horregatik, nahiko luke Mintzalagun programak indarra hartzea, gero galtzeko. "Alegia, euskararen erabilera bermatu eta, beraz, halako egitasmoen beharrik ez izatea".

Mintzapraktika baino gehiago

Hector, Daniel eta Idoia gustura daude Mintzalagun programan: *bidelariak* dira lehenengo biak, eta *bidelaguna*, berriz, hirugarrena. Mailari dagokionez, koordinatzaileak azaldu du euskaltegiko B1 maila izaten dela Mintzalagunera jauzia emateko langa. Hectorrek, esaterako, hiru urte egin zituen AEK-ko autoikaskuntzan, eta ondoren hasi zen mintzapraktikarekin, 2019. urtean; Danielek, berriz, euskaltegian hiru urte egin eta aurten eman du pausoa.

Bidelariak kontatu dute eurentzat "garrantzitsua" dela programa. Danielek honela arrazoitu du: "Etxean ez dut euskaraz egiterik. Nire aukera bakarra hau da". Hectorren egoera, berriz, desberdina da: "Etxean edo lagun artean zaila egiten zait euskaraz egitea, nahiz eta inguru euskalduna dudana. Askotan,



ingurukoak euskaraz aritzen badira ere, neuk gaztelaniaz egiten dut, eguneroko erritmoan zaila zaidalako euskaraz aritzea".

Idoiarentzat ere garrantzia handia du programak. "Niretzat garrantzitsua da euskaraz bizitzea eta euskarak presentzia izatea, eta horregatik, koherentea iruditzen zait ikasten ari diren pertsoneri laguntzea. Elkarrikketa bizkorak nahi izaten ditugu euskaldun zaharrok, ez dugu patxada handirik. Horregatik, euskaraz aritzea kostatzen zaionarekin gaztelaniaz egiten amaitzen dugu. Pazientzia gutxi dugu".

Danielek beste ideia bat ere azpimarratu du: "Gizartean sartzeko modua da. Nire ustez, ez da bestelako mintzapraktikekin alderagarria. Adibidez, ingelesa atzerrian ikasten duenak bestelako motibazioak ditu (lana, ikasketak...). Kontrara, honen helburua da hemengo gizartean barnerratzeko urratsak egitea". "Hau lagunartea da", gaineratu du Hectorrek. "Gainera, ez zaude irakaslearen pean; askatzen laguntzen dizu". Idoiaren ustez, azkenik, "bakoitzak bere zaletasunen berri ematen du eta, hala, nik ere ikasten ditut hitz berriak. *Bidelagunei* ere egiten digu mesede dinamika honek".

Zalduak aipatu duen moduan, guztiek irabazten dute programari esker. Idoiak argi du bere helburua, eta adierazi du euskaldun berriei bidea errazten jarraituko duela. Danielek, berriz, etorkizunean beste aldera pasatu nahiko luke: "Nire helburua da *bidelari* izatetik *bidelagun* izatera heltzea". Hectorrek, azkenik, "euskaraz gaztelaniaz bezain erraz" hitz egin nahiko luke. Hiru kideak bidean dira jada, eta zubi lanean jarraituko dute. ■■■

Amaia Zaldúa eta Amaia Olazabal.



kutixi
kafetegia

Aritzaga 9 • ORIO • 943-13 15 17



Lizaso
Dekorazioa

Eusko Gudari, 48 • ORIO • 943-83 07 84
itzilizaso@gmail.com



neerü

YOGA ETA JARRERA METODOAK
OREKA MUGIMENDUAN

Ibaiondo 5 behe, Orio • 686 02 05 17



niko
taberna

Karta
Pintxo tradizionalak
Okindegia

Palota Kalea, 5 • 20810 Orio • Egin erreserba 943-53 61 27



MARJO

ILEAPAINDEGIA
Eusko Gudari, 8 behe • ORIO
943-13 47 29



OINARRI

Arrantza kalea, 63 behe
ORIO
943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com
www.podologia-oinarri.com

MENDIZABAL
AROTZEGIA

Neurriko armairuak eta egurlanak

Altzerri bidea, Beti-Alai etxea • AIA-ORIO
943-83 11 75 • 645 70 84 91
mendi@arotzgi.net



PAKO IMAZ

PERTSIANAK
aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak

600 70 52 27 • 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com • ORIO



Orioko
Herri
Ikastola
ORIO GARA

Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus



Portu
Erreteta - Jateak

Kazolitak, baserriko oilaskoa,
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g • AIA
943-89 44 34



INDO

Garraio frigorifikoa
Nazionala eta Nazioartekoa

generoa
garraioak

Ubegun industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 • FAX-a: 943-13 01 44

Aterki umezurtzak



GARBIÑE MANTEROLA

Munduan badira adorazioz begiratzen diedan bi pertsona mota. Lehenengoa, goizetan irribarretsu, pozik eta energiaz beteta jaikitzen dena. Bigarrena, gauzak ez galtzeko abilitadea duena. Ez dakit zergatik greziarrek ez zuten asmatu horrelako gaitasunak zituzten jainkosa edo jainkorik. Hain eskuraezinak dira bertute horiek. Artistek ere ez dute sortu horrelako super botereak lituzkeen pertsonaia beraiei komikietan. Eta onar dezagun, izan badira super botereak.

Buru txarra dut. Epe motzerako memoria oso eskasa eta abilitade berezia gauzak erraz ahazteko. Buruan gauza gehiegi ditudan seinale dela esaten dute. Baina izan lan sasoian, izan opor garaian, antzeko galtze tasak izateb ditut. Amak ondo txikitatik errepikatu dit lapurra izateko jaioa ez naizela. Txakurrak kalera irtetea nola, pasatzen naizen leku guztietan uzten omen dut arrastoa. Goizetan ere zakur samarra naiz, zaunkalari profesionala. Eta hori ezin aldatzeko nolakotasuna dela esango nuke.

Gauzak galtzearen konturako, sistema aringarriak garatu ditut. Hasteko, apunta ezazue Euskotreneko arreta zerbitzuaren telefono zenbakia: 944-33 33 33. Eskura izateak dezente gauza errekupe ratzen lagunduko dizue. Besteko, gauzak zenbatzea ere sistema erabilgarria da oso. Etxetik ateratzean, nirekin hartzen ditudan gauzak zenbatzen ditut: (1) motxila, (2) aterkia, (3) bazkariaren poltsa, (4) zapia, (5) txaketa. Hala, leku batetik alde egitean erre pasoa egiten dut: bat, bi, hiru, lau, bost. Ondo gara. Aurrera. Bukatzeko, egin atzerako ibilbidea eta izan zaren lekuetara bueltatu eta egin galdera. Izan lotsagabe. Jende berria eta jatorra ezagutzeko bide polita izan daiteke.

Galdutako eta errekupe ratutako gauzarik xelebreenetakoa ahizparen piraguaren arrauna izan zen. Kuriosoa arrauna galtzea izango dela pentsatuko duzue. Baina ez, gogorrena da ahizpari esan niola seguru nintzela azalduko zela. Esan eta gertatu. Nire eskerrik beroenak arrauna udaltzainetara eraman zuen arima zintzoari.

Errematatze ko, omenaldi xume bat egin nahi nieke aterki umezurtzei. Haiek baitira ahanzturaren biktima erre pikatu enak. Zenbat galdu ote ditudan, zenbat galdu ote dituen gizateria osoak. Esan, herriko dendariak, zenbat aterki pilatu dituzue negozioak ireki zenituztenetik? ■■■

**TXAKURREK KALERA
IRTETEAN NOLA,
PASATZEN NAIZEN
LEKU GUZTIETAN UZTEN
DUT ARRASTOA**

IBER glass 

Kristalen konponketa eta aldaketa
Eguzki lamina ilunak
Errotulazioa
Seguruekin kontzertatuta
Txanda eskatzeko: 689 34 11 01



Estropalari, 12

LAIARAN

Arropa-inprenta
Opari pertsonalizatuak
Merchandising
Pertsonalizazioa

Oroimena eta festa, ikastolan

Orioko Herri Ikastolak 1971. urtean eman zituen lehen urratsak. Aurtengo ikasturtean 50. urteurrena ari dira ospatzen, eta datozen hilabeteetan hainbat ekimen egingo dituzte festa, oroimena eta zientzia uztartuz. Iker Elolak eman ditu ospakizunen inguruko azalpenak.

Testua: **Aritz Pardina.**

Argazkiak: **Iñigo Gaiton eta
utzitakoak.**

2021eko urrian eman zieten hasiera Orioko Herri Ikastolan urteurrenari lotutako jarduerai, logoa aukeratzeko prozesuarekin. Ikasle guztiek hartu zuten parte, eta gurasoen artean erabaki zen irabazlea. Ondoren, Giranice taldeko zenbait kidek eta Intza Unanuek, ikasle ohiak haiek ere, 25. urteurrenerako Oihana Alkortaren abestia eguneratu zuten.

Libduparen txanda izan zen ondoren. Bideoan, 50 urte hauetan izandako egoitzak azaltzen dira; hasi 1971eko elizako saloitik eta gaur egungo eraikinera arte. Ikus-entzunezkoan, ikasle eta irakasleek osatzen dute Ikastolaren egoitzak lotzen dituen giza katea.

Abenduan, arropa egin zuten urteurreneko logoarekin. Era berean, udaberrian egingo diren ekitaldiekin ikasle ohien eta ikasleen gain jarri nahi dute fokua, hala baieztatu du Iker Elola Artezkaritzako lehendakariordeak.

Hasteko, Ithaka taldearen zenbait kontzertu izango dira: maiatzaren 19an eta 20an, goizean, ikasleentzat; maiatzaren 20ko iluntzean, 20:00etan, berriz, herriko plazan igoko dira oholtzara. Horiez gain, ekainean jarduera gehiago daude: batetik, 1etik 11ra, 50 urte hauetan izandako ikasleen argazki erakusketa antolatu dute; herriko establezimenduen erakuslechioetan belaunaldika egongo dira ikusgai. Bestetik, ekainaren 4an, Ikastolaren eguneko ohiko ekitaldia izango da; azkenik, argazki erakusketaren harira, ikasle ohien bazkaria ere egingo dute ekainaren 11n.





Zertan datza Orioko Herri Ikastolaren 50. urteurreneko argazki lehiaketak? Bi alde ditu. Batetik, Lehen/Orain erronka deiturikoa dago. Ikastolan belaunaldi bakoitzaren argazki bana dago koadro banatan jarrita. Ikasleen egitekoa da ahalik eta jende gehien bildu eta haiek imitatzen saiatzea. Hala, emaitzak konparatu ditzakete. Ariketa polita da.

Bestetik, ikasle ohiei argazki zaharrak bidaltzeko ere eskatu diegu. Ez dute halabeharrez kintako argazkiak izan behar. Besterik gabe, erakusketa osatu eta haiek balioztatzeko balioko dute.

Non eta nola izango da erakusketa?

Arkuperekin elkarlanean egin dugu. 40 komertzio ingururen baiezkua jaso dugu dagoeneko, benetan zoragarria izan da haien erantzuna eta hemendik bihotzez eskertu nahiko genieke prestutasuna.

Ikasleen erantzuna ere ona izan al da?

Bai, oso polita ari da izaten. Badaude parte hartu ez duten kintak, baina gehienetan mugimendu handia dago, eta argazki asko ari dira biltzen. Tabernariek ere aipatu digute aitzakiarekin bazkari ugari antolatu direla. Antzematen da argazkien kontuarekin jende asko ari dela elkartzen, bazkariak antolatzen, eta baita parranda ederrak egiten ere (barreak).

Nola sortu zen argazki erakusketaren ideia?

Iruditu zitzaigun oroimen ariketa ederra dela. Izan ere, urteen poderioz, gaztetako kontuak ahazten dira. Guztiok ditugu ikastolako argazkiak, txikitakoak, gelakoak eta abar, eta haiek bistaratzea atsegina izan ohi da. Gainera, esan bezala, jarduera honen bitartez aspaldian elkar ikusi ez duen jendea ere elkartzen ari da, eta hori gustagarria da.

Bestalde, ikasleen garrantzia azpimarratzeko modua ere bada. Azken batean, 50 urte hauetan protagonista nagusiak haiek izan direla gogorarazteko balio du. Haiei omenaldia egin nahi izan diegu.

Beste ekitaldietan, egingo duzue ezer berezirik?

Bai. Esate baterako, ikastolaren eguneko ekitaldian egurats puzgarri bat botako dugu, zerbait teknologikoa egiteko. DBH3 eta 4ko ikasleek egingo dute: 30 kilometro gora egingo ditu, eta datu atmosferikoak bildu. GPS bidez aurkituko dugu erortzen denean, eta ikasleek datu horiek bildu eta analizatuko dituzte. Ideia zientzialariak diren hiru gurasok eta irakasle batek garatu dute.

Kutxabira deituriko dinamika ere hor dago. Kutxa batean ikastolari lotutako bizipenak bildu eta hemendik 50 urtera nolako ikastola nahi duten aipatzeko eskatu zaie egungo ikastolako ikasle guztiei. Kutxa hori ere ekainaren 4ean zabalduko dugu, ea zer irteten den. Ondoren, oraindik zehaztu ez dugun lekuren batean lurperatzeko intentzioa dugu.

Gurasoen inplikazioa ere garrantzitsua da?



**"ERRONKAK BALIO DU 50 URTEOTAKO
PROTAGONISTA NAGUSIAK IKASLEAK
IZAN DIRELA GOGORARAZTEKO"**

**"ARKUPEREKIN ELKARLANEAN
EGINGO DUGU ERAKUSKETA; 40
KOMERTZIOREN BAIEZKOA DUGU"**

**"HEMENDIK 50 URTERA ERE,
HERRIARI LOTURA IKUSI
NAHIKO NUKE IKASTOLA"**

Noski. Kontuan izan ikasle ohi asko orain gurasoak direla. Haiek animatzen ez badira umeei ikastola zer izan den erakustera... Azken batean, ikasleek erreferenteak behar dituzte; adibidez, globoaren kasuan bezala, ikus dezatela herrian zientzialariak daudela, eta, gainera, gurasoak direla. Ithakaren kontzertuarekin ere berdina bilatu dugu: ikasleek ikastolatik kanpo egiten duten lana nabarmentzea. Askotan erreferentziak atzerrian bilatzen ditugu; bada, ikasleek ikus dezatela, euren zaletasunak garatzeko, direnak direla, herrian badaudela ereduak. Ideia horri lotutako jarduerak ere egin izan ditugu bestela. Esaterako, jostintzaren gaiarekin lotuta, Goiuri Unanue eta Jon Alkain etorri ziren lehengo urtean, baita Zorione Mendez ere panpinak egiten erakustera eta arropen jatorriari buruz hausnartzera.

Nola finantzatu dituzue ekimenok guztiok?

Orain arte, gastu osoa ikastolak hartu du bere gain. Bagenekien aurtengo aurrekontua besteetan baino handiagoa izango zela, baina, gure ustez, mereziko du. Orain arteko bizipenak ikusita, behintzat, sentsazio hori dugu.

Nola ikusi nahiko zenuke Ikastola hemendik 50 urtera?

Sortu zen bezalaxe: herriarekin lotuta. Etorkizunean herriko beste eragileekin lanean aritzen den zentroa izatea nahiko nuke, bi ikastetxeen arteko elkarlana bultzatuko duena eta herrirantz begiratuko duena. Horixe nahiko nuke oroz gain. ■■■



Sagasti
LEIHOAK

Tel.: 943-13 00 77 - Fax 943-53 71 50
sagasti@sagastileihok.com
Eusko Gudari, 7
20810 Orío

Roberto Sagasti

Kalitazteko materialak
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

www.sagastileihok.com

Oreka
fisioterapia

Eusko Gudari, 54 · 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia · Talka-uhinak
Masaje terapeutikoa · Osteopatia

BODEGON

Sarasua



info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com | Erreserbak: 943-83 00 05

SU KIA
TABERNA · JATETXEA

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1
ORIO · 943-89 21 29

URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

Eusko Gudari, 5 · ORIO · 943-83 12 36

ZINKU
ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teilatutak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

deitu eta eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Ander Zinkunegi
667 74 02 79



XIXARIO
Erretegia

Txuleta eta arrainak
parrillan

Eusko Gudariaren kalea 2 · ORIO · 943-83 00 19



Zaragueta IPI
HERRI ESKOLA 2-16

943-89 92 43
012137aa@hezkuntza.net



Zarautz

Hileta Zerbitzuak
1962. urtetik zure zerbitzura

24 ordu zure zerbitzura
Beilatokia · Lekualdatzeak ·
Eginbide guztien tramitazioa

Araba kalea 35 · ZARAUTZ
943-89 49 37
info@zarautzhiletazerbitzuak.eus




Sinergia
fisioterapia eta ikerkuntza

Ibai ondo, 1 behea · ORIO
943-13 05 77 · 685 71 85 95
sinergiafisioterapia.com

- **Lesioak:** bihurdurak, tendinitisiak, zaintiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta helduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldi-rako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupeazioa.
- **Tratamenduak:** terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesiopaiing-a, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresioa (GAH), REDCORD.

Zoriontsu izateko gako batzuk



TESTUA: YOLANDA URREZTI

Yolanda Urrezti naiz, Orioko Dana Yoga eskolako zuzendaria. Txikitatik argi izan dut planeta honetan nire aletxo jarri nahi nuela, nire gaitasunak erabili harmonia eta maitasuna sortzeko, gizateriari zerbait eskaintzeko, bizitoki maitagarriago eta baketsuago bat egiteko. Horretan ari naiz terapia naturalen, coaching-aren, reiki-aren eta beste baliabide batzuen bitartez, Orion eta Donostian. Ayurveda masajeak eta yoga eskolak ere ematen ditut.

Naizena elkarbanatu nahi dut ingurukoekin, eta, gaur, osasuntsu eta zoriontsu izateko gako batzuk emango dizkizuet. Elikadurak garrantzia handia du, baina kontuan izan gauza asko direla elikagai. Gertuko eta sasoiko jakiak kontsumitzen saiatu, bizirik dauden elikagaiak: barazkiak, zerealak eta proteina saturatu gabeak. Ur garbia eta kalitatezkoa edan, kloro gutxi eta bibrazio onak dituen. Horrez gain, mendiko eta itsasoko airea arnastu, eta naturan ibili eta harekin

harremana izan, geu ere naturaren parte garelako eta naturak laguntzen digulako barnean duguna entzuten eta geure burua orekatzen.

Eman garrantzia ukitzen duzun guztiari. Naturako elementuak ukitzen saiatu, oinutsik ibili, animaliak ukitu eta jendea besarkatu. Entzuten dugunarengan ere arreta jarri. Albiste ezkor bat entzuteak gure hormonetan izan dezakeen eraginak ez du zerikusirik musika eder bat entzuteak izan dezakeenarekin. Zentzu horretan, garrantzitsuena da gure burua eta gure pentsamenduak entzuten jakitea, horiek onartzen ikastea, eta esker onekoak izatea.

Bizitzak txanponaren bi aldeak ditu. Irakaspenak atera behar genituzke gertatzen zaizkigun

SAIATU ZEUEN BURUA ENTZUTEN, BEHAR BEZALA ELIKATZEN, ERRESPETATZEN ETA MAITATZEN

gauzetatik, geure barruan bakea sortzeko, eta horrek, zoriontasunaren hormonak sortzeko. Horretarako baliabide zoragarria da meditazioa. Geure burua errespetatzea garrantzitsua da, eta dauzkagun behar emozional, mental eta fisikoak entzutea eta onartzea. Funtsean, geure buruarekin maitasunean oinarritutako harreman bat izatea ezinbestekoa da.

Atsedean hartzea ere oinarritzkoa da. Ariketa fisikoa egitea beharrezkoa da, baina neurrian, gorputzari behar duen atsedena emanda eta bihotza gehiegi behartu gabe. Gustuko gauzak egin, pasioz egiten ditugun gauzek bizipoza ematen digutelako, eta gure pasioa den hori ogibide bilakatzen badugu, are hobeto. Bizitzarekiko jarrerak kontuan izan, askotan bizitzari galgak jartzen dizkiogulako, gure gorputzari gaixotasunak sortuta. Borobiltzeko: osasuntsu eta zoriontsu bizi nahi badugu, saiatu geure burua entzuten, behar bezala elikatzen, errespetatzen eta maitatzen. ■

☎ 666 047 535

📷 @OSAI_ARKITEKTURA

✉ OSASIAIN@GMAIL.COM

📍 ALMIRANTE OA KALEA 1, 1º
20810 ORIO




ARKITEKTURA - ERREFORMAK - BARNE DISEINUA

SUKALDE ETA KOMUN PROIEKTUAK

DISEINU ETA AURREKONTU PERTSONALIZATUAK

ALTZARI EXPOSIZIOA



Irudi engainagarriak

1etik 10era zenbatuta dauden zati hauetatik erdiak engainagarriak dira, hau da, ez daude irudi nagusitik hartuta. Bereiz itzazu onak eta engainagarriak.

Zenbat?

Bide batez, zenbat saguzar ikusten dituzu irudi handian?

Hamaika ikustekoak

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.





Zein da zein? Hegazti guztiei 'txori' esatea ez da oso zehatza, ezta? Lotu txori bakoitzari dagokion izena.



Jarri marrazki bakoitzari dagokion hizkia eta zer dioten jakingo duzu.

Hizki-Marrazki



Handitik txikira

Ordена itzazu txitak handitik txikira, hau da, handienari 1 zenbakia emanaz eta txikienari 6.

Sudokua

Saia edo putrea hegazti sarraskijalea da, oso ezaguna. Bete itzazu hutsuneak PUTREA hitza osatzen duten hizkiez (P, U, T, R, E eta A). Gogoratu hizkiek behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Soluzioak ikusteko:

www.plazanbazan.eus/

IRAGARKI SAILKATUAK

ALOKAIRUA

Autokarabana eta karabanentzat plazak alokagai, garaje estalia eta beharrezko ekipamentuarekin. Ala-Orio. Tel. 620 85 69 53 (goizez).

Alokatzeko garaje bila Goiko kalen. Tel. 690 27 28 42.

LAN BILA

Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo adineko pertsonak zaintzeko. Neska arduratsua eta berehala lanean hasteko prest. Telefonoa: 627 61 37 83.

Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketa lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tel. 642 69 60 38.

Lan bila nabil, etxe garbiketarako egiteko prest. Tel. 641 44 60 70.

Etxeko lanak egiteko edo zaintzan lan egiteko prest nago. Tel. 631 82 44 52.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbitasunari eta txukuntasunari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jartzen dut nire lanean. Berehala lanean hasteko prest nago. Tel. 602 08 98 86.

Iragarkietarako bokoak. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943-83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com.
Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. Barneko zein kanpoko langile bezala, edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Samanda. Tel. 643 85 78 54.

Emakume gaztea etxeko lanak, garbiketak edo tabernako lanak egiteko eskaintzen da. Egun osoa edo orduka. Telefonoa: 627 09 07 06.

Neska gaztea haurrak eta adinekoak zaintzeko prest, irailetik aurrera. Esperientzia dut zeregin horietan eta baita prestutasun osoa ere. Telefonoa: 695 37 82 60 Estrella Reyes.

SALGAI

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte aseguria ordaindu du. 3.500 euro. Tel. 657 77 45 11.

Zerrama, apotea, txerrikumeak eta txekorrak salgai Usurbilgo baserri batean. Tel. 607 66 86 03. Joxe Krux.

BESTELAKOAK

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatuta... Tel. 623 17 95 37.

Orion bizi den familia bat autokontsumorako baratze ekologiko bat egiteko lurzoru baten bila dabil alokairuan Orion edo inguruan. Tel. 657 71 96 14.

ITSASOA

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera	Ilargia
1	05:38 eta 17:52	11:39 eta 23:59	●
2	06:10 eta 18:22	12:11	●
3	06:42 eta 18:52	00:34 eta 12:43	●
4	07:10 eta 19:24	01:08 eta 13:16	●
5	07:50 eta 19:59	01:44 eta 13:49	●
6	08:29 eta 20:40	02:22 eta 14:27	●
7	09:17 eta 21:34	03:08 eta 15:14	●
8	10:22 eta 22:46	04:06 eta 16:18	●
9	11:45	05:22 eta 17:42	○
10	00:08 eta 13:04	06:41 eta 19:00	○
11	01:20 eta 14:04	07:45 eta 20:00	○
12	02:17 eta 14:50	08:34 eta 20:47	○
13	03:03 eta 15:31	09:17 eta 21:30	○
14	03:46 eta 16:10	09:57 eta 22:11	○
15	04:28 eta 16:50	10:36 eta 22:53	○
16	05:10 eta 17:31	11:17 eta 23:37	○
17	05:54 eta 18:14	11:59	○
18	06:41 eta 19:00	00:23 eta 12:44	○
19	07:31 eta 19:51	01:11 eta 13:32	○
20	08:26 eta 20:48	02:05 eta 14:25	○
21	09:29 eta 21:55	03:04 eta 15:26	○
22	10:44 eta 23:10	04:12 eta 16:38	○
23	12:05	05:27 eta 17:56	○
24	00:25 eta 13:18	06:42 eta 19:08	○
25	01:34 eta 14:17	07:46 eta 20:09	○
26	02:31 eta 15:05	08:39 eta 20:59	○
27	03:20 eta 15:46	09:24 eta 21:44	○
28	04:01 eta 16:22	10:03 eta 22:24	○
29	04:39 eta 16:56	10:39 eta 23:02	○
30	05:15 eta 17:29	11:14 eta 23:39	○
31	05:49 eta 18:00	11:48	○

FARMAZIAK-MAIATZA

ZARAUTZ

3.	ETXEBERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98
2, 14 eta 15.	ESPARZA: Santuturri plaza, 5-6 / 943-50 47 83
1, 5, 11, 19, 25, 29 eta 30.	GALLO: Zigordia kalea, 17 / 943-13 40 19
9, 21, 22 eta 27.	GAMINDE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19
7 eta 8.	IRIARTE: Zinkunegi, Pilarxo Enea / 943-13 29 70
6, 12, 20 eta 26.	ITURRIA: Kale Nagusia, 12 / 943-83 29 70
4, 10, 13, 16, 18, 24 eta 28.	LARRAÑAGA: S. Frantzisko, 16 / 943-13 38 14
17 eta 23.	REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83

AGENDA

ORIO

MAIATZAK 11, ASTEAZKENA

Zinema: Gurean dokumentala.
Etxeluze gaztetxean, 19:00etan.

Hitzaldia: Sargazoetatik Orioraino:
aingiraren bidaia miresgarria', Eli
Diazen eskutik.
Arraunetxen, 19:00etan.

MAIATZAK 12, ASTEARTEA

Haurrentzako antzerkia: Azken
balea. Kultur etxean, 17:30ean.

Hitzaldia: Bizitzen ikasi, hiltzen ikasi,
Belen Capaperen eskutik.
Salatxon, 18:30ean.

Tailerra: Pentsamendu Tailerra.
Etxeluze gaztetxean.

MAIATZAK 13, OSTIRALA

Kontzertua: Benito Lertxundi.
Karela kiroldegian, 22:00etan.

MAIATZAK 14, LARUNBATA

Jaia: Baia Egun. *Egun guztian.*

MAIATZAK 21, LARUNBATA

Tailerra: Sexu eta genero disidentzia,
heteroarauari erresistentzia.
Etxeluze gaztetxean.

MAIATZAK 25, ASTEAZKENA

Hitzaldia: Orioko natur ondarea:
ezkutuko altxorak, agerian, Arturo
Elosegiren eskutik.
Arraunetxen, 19:00etan.

MAIATZAK 26, OSTEGUNA

Hitzaldia: Zainketa aringarriak,
Montse Perezen eskutik.
Kultur etxean, 18:30ean.

MAIATZAK 27, OSTIRALA

Kontzertua: Gaitza, Sofa eta Gigante.
Etxeluzen.

MAIATZAK 28, OSTIRALA

Kontzertua: Basque Reggae Kultur
eta abar. *18:00etan, Etxeluzen.*

AIA

MAIATZAK 7, LARUNBATA

Antzerkia: Porno Vs. Afrodita (edo I
love Gorka Urbizu).
Probalekuan, 22:30ean.

MAIATZAK 15, IGANDEA

Harri-jasotzea: Bost marka saiakera.
Probalekuan, 12:00etan.

MAIATZAK 22, IGANDEA

**Azoka eta Gipuzkoako Harri
Txikien Txapelketa.**

MAIATZAK 28, LARUNBATA

Ipuin kontalaria: Amelie ipuinen
jostune.
Aiako kultur etxean.



Usurbil Autoak
30 URTE ZERBITZUAI

**TXAPA - PINTURA -
MEKANIKA**

DESINFEKZIO GUNEA


**ESKATU AURREKONUA
KONPROMEZURIK GABE**

Aitzearra Kalea, 24, 20170 · Usurbil
943-36 10 79
usurbilautoak@gmail.com

Xsarkitektura
herrikobarra, 11 behea • ZARAUTZ • 943-13 43 58

www.xsarkitektura.com

eraikuntza zerbitzuak
eraikinen mantenua
errehabilitazioak
proiektuak
txostenak
ITE-ak
obrak



Puntua jarrita

Bertsolaria: Haitz Arregi.

Doinua: Haizeak bidali du

1

Aurten bertso eskolan lehenengo urtea

taldeakin izan det
kristoren suertea
maisua ere ona
badauka ospea
Mikelek ireki dit
bertsoen atea.

2

Bertso eskolan ni
inoiz ez naiz aspertzen
koplak ta bertso zaharrak
ditugu kantatzen
nahiz nork bere bertsua
zaia den osatzen
Mikelek ta lagunek
digute laguntzen.

3

Doinuak, errimak
eta jolas pila
Nik ondo pasatzen det
izan gabe abila
Berdin dio hemen
neska edo mutila
Probatu nahi duena
etorri dadila.


Hurrengo bertsolaria:

Joseba Agirre

Puntua:

Futbolean badabil
umea ugari

**Hasi Bertsotan atalean puntuka ariko dira bertsolariak. Oraingoan Haitz Arregiri jarri dio puntua
Malen Gurrutxagak: "Aurten bertso eskolan lehenengo urtea". Hurrengoari ere jarri dio puntua.**



ZORIONE MENDEZ

BALEAREN EGUNA

07 Larunbata

19:30

PROIEKZIOA ETA EKITALDIA
Mende bete arraunean eta bertsotan

📍 Arraunetxe

📖 Gonbita: Kultur etxean eskuragai

08 Igandea

10:00-14:00

ARTISAU-AZOKA

11 Asteazkena

19:00

HITZALDIA
Sargazoetatik Orioraino: aingiraren bidaia miresgarria
Esti Diaz Silvestre

📍 Arraunetxe

12 Osteguna

17:30

FAMILIENTZAKO ANTZERKIA
Azken balea
Tomaxen Abenturak

📍 Kultur etxea

📖 Sarrera: 2€

13 Ostirala

Goizez

KANTALDIA
Balea eta itsasoari buruzko kantak
Herriko haurrak kantari

17:00

HAURRENTZAKO TAILERRAK*
Ontzigintzaren inguruan

Albaola Itsas-faktoria

📍 Mutiozabal

22:00

KONTZERTUA
Benito Lertxundi

📍 Karela kiroldegia

14 Larunbata

10:00

BISITA GIDATUA*
Orioko itsas-ondarea
Begi Bistan elkarte

📖 Sarrera: 3€

KALEJIRA
Pello eta Nikolasa erraldoiak eta buruhandiak + txistulariak

📍 Kultur etxetik hasita, herrian barrena

10:45

DANTZA-IKUSKIZUNA
Harribil dantza-taldea

📍 Herriko Plazatik hasita, kalejira herrian barrena

11:30

KANTU-KALEJIRA
Salatxo abesbatza + trikitilariak

📍 Bikamiotatik hasita, herrian barrena

12:00

SARDINA-PINTXOAK

📍 Herriko Plaza

13:00

BALEAREN ARRANTZA
Salatxo abesbatzaren eta Harribil dantza-taldearen ongietorria

📍 Molla

14:30

HERRI-BAZKARIA

📍 Herriko Plaza

📖 Tiketa: Kultur etxean eskuragai, maiatzaren 9ra arte

18:00

PLAZA-DANTZAK
Talai-Mendi dantza-eskola

20:30

ORKRESTA ELEK-TROTXARANGA

📍 Herrian barrena

22:30

DJ AROS

📍 Herriko Plaza

15 Igandea

12:00

KONTZERTUA
Gora Kaletxiki bandaren kontzertua, Martin Peronaren omenez
Danbolin Musika Eskolako bandaren laguntzarekin

📍 Herriko Plaza